



HAURTZAROA ETA INGURUMENA



INMA ikerketaren parte-hartzaile horiek:

Laugarren buletina prestatu dugu, ikerketaren emaitzak zuei helarazteko asmoz; eta berriz ere eskertzen dizuegu zuen parte-hartzea eta konfiantza.

Duela hiru urte abitu zen ikerketa eta, dagoeneko, 614 ama eta euren seme-abalak dira ikerketan partaide. Buletin honetan, INMA jaioberrien profilaz gain, jaiotzatik 14 hilabetera bitartean bildutako informazioaren laburpena duzue.

UMEAK

Gogora dezagun zein diren INMA ikerketaren helburu nagusiak: a) ingurumen-kutsatzaileekiko esposizioak zer-nolako inpaktua duen ebaluatzea eta b) dietak nola eragiten duen umekiarengan nahiz umearen hazieran, osasunean eta garapenean baloratzea. Horretarako, 614 umeri buruzko informazioa izango dugu lagungarri, alegia, umea jaiotzean, 14 hilabetera eta 2 urtera bildutako datuak. Hona hemen, hiru aldi horietan egon diren emaitza adierazgarriak:

Jaiotza:

Jaioberrien %51 mutilak izan dira eta %49, neskek. Mutilek, jaiotzean, 3,3 kilo eta 47 zentimetro izan dute batez beste; eta neskek, 3,2 kg eta 45 cm. Umeen %70 erditze natural bidez jaio ziren; %17, tresnak (forceps-ak eta bentosak) erabiliz; eta, azkenik, %13, zesarea bidez.

14 hilabete eta 2 urte:

Bayley Umearen Garapen Eskalaz baliatzen gara, umearen garapen-maila ebaluatu ahal izateko. Eskala horren bitartez baloratzen da, alde batetik, hizkuntza, memoria, arazoak konpontzeko gaitasuna, espazioarekiko ikusmen-koordinazioa eta jokaera (**Adimen Eskala**), eta, bestetik, trebetasun psikomotorrak. (**Eskala Psikomotorra**).

Gaur egun, 14 hilabeteko umeei egiten ari zaie **Bayley testa**, eta dagoeneko ebaluatu diren 313 umeen batez besteko puntu kopurua hauxe da:

Adimen Eskala (101,1) eta Eskala Psikomotorra (99,2)

Eskala bietarako normaltasun-maila 80-120 puntu direla kontuan hartuta, INMA umeak espero ziren muga barruan daude.

Eskalaren batean espero zen puntu kopurua (%1) lortu ez duten umeen gurasoei emaitzaren berri eman zaie, eta ume horiek pediatria-zerbitzuan ebaluatu dira.

26 hilabete dituztenean ere, **Bayley testa** egiten diegu, bai umearen garapenari jarraipena egiteko, bai 14 hilabete zituztela eskuratu ziren emaitzak finkatzeko. Gaur arte, guztira, 99 umeri egin diegu testa.


ELIKADURA

Haurdunaldiko lehenengo hilean, gomendatzen den energia-ingesta (2600 kcal/egun) baino txikiagoa izan da (2021 kcal/egun) batez beste; aitzitik, proteina-ingesta handiagoa izan da (94 g/egun) gomendatutakoa (56 g/egun) baino.

Gogoan hartu elikadurak osoa eta askotarikoa behar duela izan. Espainiako Elikadura Bateratzeko Elkarteak (EEBE/SENC) ondoko errazioak jatea gomendatzen du:

Elikagaiak	Em. heldua	Haurduna	Em. bular-emailea	Elikagaiak
Irinezkoak	3-6	4-5	4-5	Ogia, pasta, arroza, lekaleak, zerealak, zereal integralkak, patatak.
Barazkiak eta ortuariak	2-3	2-4	2-4	Sasoikoak, azokaren arabera. Eta mota askotako entsaladak.
Frutak	2-3	2-3	2-3	Sasoikoak.
Esnekiak	2-4	3-4	4-5	Esnea, jogurta eta gaztak.
Proteinadun elikagaiak	1.5-2.5	2.5	2.5	Haragiak, hegaztiak, arrainak, arrautzak. Lekaleak eta fruitu lehorrak.
Koipe gehigarriak	3-5	4	4	Oliba- eta hazi-olioa hobesten dira
Ura	2 edalontzi tik gora	4-6 edalontzi	6-8 edalontzi	Sareko ura, botilako ura, infusioak, eta azukre gutxiko eta alkoholik gabeko edariak

Arrainak, osasungarria bada ere, merkurioa bezalako kutsatzaileak eduki ditzake. Espainian ez da ia ezagutzen zenbat merkurio egon daitekeen elikagaietan, ez baita ikerketarik egin. Merkurio-kantitatea ilean edo odolean neur daiteke. Haurdunaldian edo zilbor-hestearen odolean neurtzen bada, aldiz, "Jaio aurreko esposizioa" neurtu dela esan ohi da.



INMA ikerketan, gainera, emakumeek batez beste kontsumitu duten arrain-kantitatea kalkulatu da. Izan ere, emakume bakoitzak eguneko 75 g arrain kontsumitu du, eta hori da, gutxi gorabehera, bi eguneko errazio ertaina jatea bezala.

Gure lurraldean dugun merkurio-kantitatea –batez beste, 9,2 mikrogramo litroko– Japonian edo Taiwanen dutenaren antzekoa da; arrainaren kontsumoari dagokionez ere berdintsu gabilta han eta hemen. Ferøe edo Seychelles uharteetan, ordea, merkurio-maila altuagoa da (23 µg/L). Europan, oro har, maila baxuagoak daude.

Ikerketa bat baino gehiago egin da, umearen odolean zein merkurio-kantitate den arriskutsua jakiteko asmoz, baina emaitzak oraindik ez dira erabakigarriak.

INGURUMENA

Zein dira, INMA amen ustez, beren bizitokietako ingurumen-arazorik garrantzitsuenak?

Haurdun zeundetela, eskatu genizuen garrantzitsuenak iruditzen zitzaizkizuen zuen bizitokiko ingurumen-arazoak adieraztea.

Bost izan dira gehien aipatu dituzuenak:

1. Airearen kutsadura (ibilgailuen zirkulazioa, industria, etab.) (%70)
2. Industria gogaikarri, toxiko edo arriskutsuen gertutasuna (%55)
3. Kanpoko zarata: ibilgailuen zirkulazioa, lantegiak, industriak, etab. (%40)
4. Irrati-frekuentziako antenen hurbiltasuna (mugikorak, irradia, etab.) (%31)
5. Iturriko edateko uraren kutsadura (%30)

Gehienbat, hiri inguruetan bizi zaretenok hauteman dituzue arazo hauek.

Airearen kalitatea

INMA-Gipuzkoa ikerketa esparruan, airearen kutsadura-iturri nagusiak industria eta zirkulazioa dira. Airearen kalitatea neurtzeko, atzipen-ekipoak erabiltzen dira. Ekipo horiek biztanleriaren gehiengoa daukaten udalerrietan daude kokatuak: Azkoitia, Azpeitia, Beasain-Ordizia, Legazpi, Olaberria eta Zumarraga-Urretxun.

Ataunen ere jasotzen da airearen kalitateari buruzko informazioa, nahiz eta biztanleria gutxiko eta kutsadura-iturririk ez duten herrien ordezkaria izan.



2006, 2007 eta 2008rako udalerrri bakoitzeko PM_{2.5}-en batez besteko balioa ondorengo taula honetan jasotzen da:

UDALERRIA	2006	2007	2008
Batez bestekoa (µg/m ³)			
Ataun*	15,5	14,4	9,2
Lazkao	-	-	12
Azkoitia	28,8	12,2	12
Azpeitia	21,7	13,5	10,7
Beasain-Ordizia	19,2	15,8	12,2
Legazpi	15,7	12,5	8,9
Olaberria	20,3	17,9	-
Zumarraga-Urretxu	17,5	16,3	12,5

Ataunen jasotakoan antzeko balioak estimatzen dira, taulan agertzen ez diren udalerrietarako ere.

2008an, udalerrri guztietan antzematen da beharpen nabarmena partikulen mailan (PM_{2.5}); eta ez dute, inolaz ere, 2008ko zuzentarauan ezarritako legeko muga gainditzen.

2009an zehar, konposatu organiko hegazkorren lau neurketa-kanpaina egingo dira bizilekuen %5etan, etxebizitza barruko airearen kalitatea neurtzeko.

Uraren kalitatea

Aurreko aldiaren bezala, uraren konposatu hauek analizatu dira: Trihalometanoak (THM), azido holoazetikoak (AHA), nitratoak, beruna eta artsenikoa.



Emaitzak aurrekoan jasotakoaren antzekoak dira, eta ez da inongo udalerritan gainditzen konposatu bakoitzaren araudian ezarritako erreferentzia-zko baliorik. Euskal Autonomia Erkidegoko

edateko uraren kontrol- eta zaintza-programak aldiro analizatu eta kontrolatzen du ikerketa eremuetan hornitutako uraren kalitate kimiko eta mikrobiologikoa. Ikerketa eremuan dauden herrietako udal-sareen bidez hornitzen den ura kalitate onekoa da, eta ez du kontsumitzaileentzako inongo arriskurik.

Zure herriko uraren kalitateari buruzko datuak helbide honetan kontsulta ditzakezu:

<http://www.osanet.euskadi.net/r85-20461x/es/j15aWar/j15aindex.jsp>

ARGIBIDE GEHIAGORAKO:
Aitana Lertxundi: alertxundi@ej-gv.es
Tel.: 943022756

PROIEKTUAREN FINANTZAKETA:

Udalerrriak: Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga; KUTXA; Ikerkuntza Sanitarioko Fondoak, Zientzia eta Ikerketa Ministerioa; Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia.